

# *Euskalingua* 1-25 katalogoa

Lorea Unamuno, Maribi Unamuno, Karmele Perez Urraza

EHU/UPV

lorea.unamuno@ehu.es, victoria.unamuno@ehu.es, karmele.perezu@ehu.es

## Abstract

From 2002 to 2014, *Euskalingua* magazine has published 25 issues on a semester basis. In the latest issue the editors present a catalog of its journey. The authors, subjects and languages used are analysed and the value of the volume of academic texts in Basque is enhanced in this catalog.

## Laburpena

*Euskalingua* aldizkariak 2002tik 2014ra, urtean biko erritmoari eutsita, 25 zenbaki argitaratu ditu eta 25. honetan ibilbidearen katalogoa aurkezten dugu; egileak, gaiak eta hizkuntzak irizpideak analizatu ditugu eta euskaraz sortutako testu akademikoen masa balioetsi.

**Keywords:** *Euskalingua*, catalog, digital magazine, author, title, keyword

**Gako hitzak:** *Euskalingua*, katalogo, aldizkari digital, egile, izenburu, gako hitz

## 1. Sarrera

Mendebalde Kultura Alkartek (MKA) egoki iritsi dio *Euskalingua* aldizkariaren lehenengo hogeita bost zenbakien katalogoa idazteari, egindako lana baloratzeko aukera emateaz gain, aurrera begirako norabidearen gogoetarako bidea zabal dezakeelako, hortik sortu dugu *Euskalingua 1-25 katalogoa* ekarpena.

Hemen lantzen ditugun datuak eta gehiago artikulu honen beronen amaierako hamahiru orrietako taulan kontsulta daitezke, non ordena kronologikoan, bost zutabetan antolatuta agertzen den informazio hau: lehenengo zutabean, aldizkariaren urtea, zenbakia eta artikuluaren orriak; bigarrenean, egilea edo egileak, alfabetikoki ordenatuta; hirugarrenean, artikuluaren izenburua, jatorrizko artikuluari hiperestekatuta; laugarrenean, dagozkion gako hitzak eta bosgarrenean, beste datu batzuk, hala nola, zein hizkuntzatan dagoen artikulua, audiorik duen, irudirik duen.

Era berean, eskerrak emateko aukera ere geure egiten dogu, badakigulako honelako egitasmoetan, eragile eta norbanako askok hartzen duela parte. *Euskalingua* aldizkarian sinetsi eta ekonomikoki lagundu digute, bai BBK finantza erakundeak, bai Bizkaiko Foru Aldundiak Kultura Saileko diru laguntzen bidez; laguntza teknikoak EHUko (Euskal Herriko Unibertsitatea) AHOLAB Signal Processing Laboratory delakoak eman digu, apailatze tekniko bere ardurapean hartuta; eta, edukiz hornidu dute artikulugileek, aldizkaria gauzatzeko ezinbesteko izan direnak, orduan, bada, eskerrak euroi ere, *Euskalinguari* euren ekarpenak argitaratzeko foro egoki iritzi eta, batzuen kasuan, bertan argitaratzeko aukerari eutsi izanagatik. Hauen eragile guztion ekarpenak egin du

*Euskalinguak* argia ikustea eta jardun honen bidez ari gara lortzen euskararen ganeko ikerketa kaleratzen duen gunea.


## 2. *Euskalinguaren* ibilbidea

Proiektua egikaritzen hastean, “Hizkuntza ondarea bildu, ikertu eta zabaltzea helburu izanda, hizkuntzaren inguruko ikerketa-arlo ezberdinak batuko dituen aldizkari zientifikoa”<sup>1</sup> sortzeko asmoa izan zen nagusi. “*Euskalinguak* euskal hizkuntzaren inguruan dabilzan aditu guztientzat lekua eskaini nahi du, alor ezberdinetako ikerlarien ideiak eta iritziak trukatzeko foro eskainiz eta diziplinartekotasuna bultzatuz”<sup>2</sup>.

Goian aipatutako asmo eta helburuekin, MKAk 2002an ipini zuen martxan proiektu hau. Aldizkariaren izaera zehaztu, *Euskalingua* 1695-7458 ISSNdun aldizkari elektronikoa sortu eta argitaratzeko baliabideak lortu zirenean, hau da, ideiak egikaritu zirenean, 2002ko azaroan argitaratu zen lehenengo zenbakia, *Euskalingua* 1 izan zena. Harrezkero, gaur arte eten barik, urtean zenbaki bi, maiatzean bata eta azaroan bestea, atera ditugu eta, hamahiru urteko ibilbide honetan, 177 artikulua argitaratu, hau da, batez beste 14,75 artikulua urteko, 1. taulako grafikoak adierazten duenez; zenbakiko batez bestekoa 7,08 artikuluko da.

<sup>1</sup> Amorrortu, E. et al. (2002), *Euskalinguaren* Aurkezpena, *Euskalingua*, 1, 2. orria.

<sup>2</sup> *Ibidem*, 2. orria.



1. taula: Artikulu kopurua urteka


*Euskalingua* 1-21 zenbakiak aldi berean bi formatutan argitaratu ditugu: formatu elektronikoan MKAko web orrian<sup>3</sup> eta CDan. 22.etik aurrera, berau barne, kontsumo ohiturei erreparatu, CDA argitaratzeari utzi eta formatu elektronikoari eutsi diogu.

### 3. Egileak

374 egilek (113 norbanakok) aukeratu du *Euskalingua* ikerketa emaitzak bertan argitaratzeko; horietarik % 74,59 EHUKoak eta generako % 25,41 beste jatorri batzuetakoak.

EHUKo irakasleek eta graduko zein gradu-ondoko ikasleek osatzen dute talderik handiena, 279 egile, (%74,59), hain zuzen; EHUKo irakasle eta ikasleek bakarka zein lankidetzan egindako lanak ekarri dituzte; azken hauetakoak dira AHOLAB, EUDIA, IXA Taldea, edo ARAKAre (gaur GARAIAN ikertalde egonkorreko kide) emaitzak. Inoren ekarpena gutxietsi barik, aipamen berezia egingo diogu AHOLAB Signal Processing Laboratory delakoaren ekarpenari, bere ekoizpen osoaren 26 artikulu argitaratzeko *Euskalingua* aukeratu izanagatik.

Beste unibertsitate batzuetako egileen parte hartzea adierazgarria izan da, halan, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta atzerriko beste unibertsitate batzuetako egileek egile guztien % 5,88 dira; irakaskuntza ertainetakoak % 5,08. Vicomtech, Tecnalia, Irale, Euskaltzaindia, Elhuyar Fundazioa, Labayru eta administrazio publikoko ekarpenek osatzen dute generako % 14,45a.




2. taula: Egile kopurua zenbakiko

### 4. Gaiak

Gaiak askotarikoak izan dira, izenburuetan eta gako hitzetan islatzen den moduan. Argitaraturiko artikuluen gaiak euskararen corpusa, hizkuntzaren irakaskuntza, giza ahotsaren konputazioa, literatura, etnografia, eta beste dute gaitzat.

29 artikuluk fonetika, fonologia, intonazioa, azentua, etab. dute ardatz; 28k ahotsaren sintesi sistemak, hizkuntzaren teknologiak; prozesamendua; 24k lexikoa, fraseologia, hiztegia; 24k literatura, herri literatura, eskuizkribuak, kazetaritza, prosa zientifikoa, antzerkia; 16k gramatika, aditza, sintaxia, morfologia, etab. 16k hizkuntza irakaskuntza, metodologia, eskola curriculum; 5k dialektologia, bariazio linguistikoa; 5k hizkuntzaren filosofia eta 3k estatusa, ugarienak aipatzearen.



3. taula: Gako hitz kopurua urteko

<sup>3</sup> Mendebalde Kultura Alkartea <http://www.mendebalde.com>

Gako hitzen kopuruari dagokionean, esan daiteke zenbakiko 25 gako hitz daudela batez beste, hortaz, urteroko bi zenbakiak kontuan izanda, urteko 50 gako hitz dira. Batez besteko honetatik urruntzen dira 2003, 2007 eta 2013a, hurrenez hurren, urteko 69, 61, eta 63 gako hitz izan baitituzte, 3. taulan ikus daitekeen moduan.

## 5. Hizkuntzak

*Euskalingua* hizkuntzalaritzaren komunitate zientifikoaren parte izateko xedez sortu zen eta euskara ingelesa eta gaztelania ageri dira. Pentsa daitekeen moduan, idatzitako gehiena euskaraz dago.

Euskaraz sortutako artikuluen bolumena kontuan hartzen bada, % 93,26 abiapuntutik bertatik dago euskaraz, hau da, ikerketa akademikoa euskaraz sortu da.


Ingeleseaz 22 artikulua argitaratu ditugu; horietarik lauk izan dute ingelesa sorrerako hizkuntza, (% 2,25), eta 18 itzulpenak dira, (%10,11), euskaratik ingelesera, beren beregi itzulitakoak.

Artikulu guztietarik zortzi, (%4,49), egileek halan idatzita, gaztelaniaz argitaratu da.

## 6. Gehigarriak

Teknologia berriei esker, aldizkaria garatuz joan da eta artikuluen izaera ere aldatu da, hau da, idatzizko testuari gainontzeko edukia eransteko aukera gero eta gehiagotan erabili da; horrela bada, *Euskalingua 17tik* aurrera ahotsezko zein irudizko gehigarriak erantsita dituzte zenbait artikuluk; hiruk fonetika, fonologia edo ahozko literatura gaitzat izanik, grabazioen audioak dituzte entzungai eta lauk, literatura arlokoak izanik, eskuizkribuen edo edizio ezezagunen faksimileak.

Bestalde, 4. taulan ikus daitekeenez, hasierako zenbakien orri kopurua jaitsiz joan da. 25 zenbakien batez bestekoa 104,6 orri/urteko da; azken lau urteetan egonkortu egin da eta 120 orri/urteko batez bestekoa du.



4. taula: Orri kopuru urteko

## 7. Ondorioak

Egindakoari begira, gaurko baliabide motan argitaratuta egotea, ikerketan diharduten ikerlarientzat foro irekia izatea, eta euskararen erabilera akademikoko testu masa sortu izana aipatu ditzakegu.

*Euskalinguaren* hasierako aurkezpenean helburu aipatzen zen “batetik, euskararen ikerketan bai hemen eta bai atzerrian jarduten dutenen arteko eztabaida akademikoa ahalbideratzea; bestetik ikertzaile gazteei euren ekarpenak zabaltzeko lekua eskaintzea”<sup>4</sup> eta helburu horri eutsi egin zaio, eusteko genuen intentzioagatik eta 113 ikertzailek helburu horiekin bat egitea aukeratu dutelako.

Oraingo gaiak egile diferentiek uneko eran idatzita irakur daitezke bertan; 25 zenbakiotako 2.615 orrietan eta zortzi milioitik gora tarte bako karaktereetan -ez orrien kontadurian ez karaktereenean itzulpenak ez dira kontuan hartu- gaurko hizkuntzaren erabilera idatziaren isla azaleratzen da.

Katalogoa egitea atzera begirako ariketa izan da, ez horregatik bidearen amaiera. Urteotako jarduna betegarria izan zaigu, *Euskalingua* bera dugu bere buruaren ordain, hortaz, aurrera egiteko asmoa agertzeko baliatzen dugu ekarpen hau. Aurrera begira, lehengo irizpide eta formei eustea eta eremu berrietara zabaltzea dira asmoak.

Hasierako helburuak aintzat hartuta, plataforma irekia, ikertzaileei eskainia izaten jarraitzeko asmoa agertzen dugu, eta horrekin batera, euskaraz sortutako testu akademikoen corpusa gehitzen eta osatzen jarraitzeko; hori eginaz, testu akademikokoak izateagatik, euskararen estatusan bertan ere eragin dezakegun ilusioarekin.

## 8. Erreferentziak

Amorrortu, E. et al. (2002). *Euskalinguaren* Aurkezpena, *Euskalingua*, 1, 2. orria.

Mendebalde Kultura Alkartea. <http://www.mendebalde.com>

<sup>4</sup> Amorrortu, *op. cit.*, 2. orria.

**Euskalingua aldizkari digitalaren katalogoa (2002-2014)**

Urtea, zk., or.	Egileak	Izenburua	Gako-hitzak	Hizkuntza etab.
2002, 1, 2	Amorrortu, Esti Gaminde, Iñaki Sariugarte, Iñaki Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalinguaren aurkezpena</a>		Euskara
2002, 1, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 1en aurkezpena</a>		Euskara
2002, 1, 4-14	Gaminde, Iñaki	<a href="http://www.mendealde.com/antbuspre.asp?Cod=1652&amp;nombre=1652&amp;orden=True">Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologikoak</a>	dialektologia, fonologia, geografia linguistikoa	Euskara
2002, 1, 15-24	Hualde, Jose Ignacio Mugarza, Pello Zuazo, Koldo	<a href="#">The Accentual System Of Mallabia Basque</a>	Mallabia, azentua, prosodia	Ingelesa
2002, 1, 25-31	Yarnoz, Belen	<a href="#">Descripción de las Sibilantes Vascas Mediante el Parámetro "Tongue Shape"</a>	fonetika akustikoa, txistukariak, transkripzioa	Gaztelania
2002, 1, 32-40	Goikoetxea, Juan Luis	<a href="#">Lexikoaren ikaskuntza</a>	H2ko hiztegia, lexiko esanguratsua, atxikitze-eredua, baliokidetasun semantikoa, metodo audiolinguala	Euskara
2002, 1, 41-46	Olalde, Ander Gaminde, Iñaki Elgoibar, Esther	<a href="#">Bakioko ahozko toponimoak direla eta</a>	toponimia, azentua	Euskara
2002, 1, 47-72	Barrutia, Eneko	<a href="#">Aditza indartuteko "egin" galdegaiaren erabilera</a>	galdegaia, sintaxia, dialektologia	Euskara
2002, 1, 73-79	Bilbao, Begoña	<a href="#">XX. mendeko testuliburuetakako pertsona ezagunak. Bizkaiko kasua.</a>	testuliburua, curriculum, edukiaren azterketa, pertsonaia	Euskara
2002, 1, 80-85	Kaltzakorta, Javier	<a href="#">"Donostiako hiru damatxo" kantaren gainean</a>	herri literatura, kantak	Euskara
2002, 1, 86-90	Alegria, Iñaki Artola, Xabier Sarasola, Kepa	<a href="#">Hizkuntzaren tratamendu automatikoa: aplikazioak, tresnak, baliabideak eta oinarriak</a>	hizkuntzaren tratamendu automatikoa, teknologia berriak	Euskara
2002, 1, 91-95	Navas, Eva Hernández, Inmaculada Madariaga, Imanol Sanchez, Juan M. Ezeiza, Nerea	<a href="#">Esaldi etenaldien ezarpena CART bidez Euskal Testu Ahots Bihurketarako</a>	ahotsaren sintesia, entonazioa, etenaldiak	Euskara
2003, 2, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 2ren aurkezpena</a>		Euskara
2003, 2, 4-9	Coterón, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskara. I: contra el sujeto</a>	gramatika, subjektua, objektua, pasiboa, ergatiboa	Gaztelania
2003, 2, 10-17	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Mungialdeko herskariaren eta afrikatuaren txandaketaz</a>	fonetika, akustika, dialektologia	Euskara

2003, 2, 18-27	Uriarte, Jon Andoni	<a href="#">Fruizko hizkera: Bokalismoa</a>	bokalismoa, triangelu akustikoa	Euskara
2003, 2, 28-118	Mtz. de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia</a>	hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2003, 2, 119-129	Intxaurreaga, Gorane	<a href="#">Galdakaoko baserriko tresnen inguruan</a>	Galdakao, etnografia, lexikoa, baserria	Euskara
2003, 2, 130-145	Elgoibar, Esther Gaminde, Iñaki	<a href="#">Lekeitioko narrazioak</a>	dialektologia, testuak, lexikoa	Euskara
2003, 2, 146-154	Barrutia, Eneko	<a href="#">Orozkoko etno-ipuin batzuk</a>	Orozko, laminea, sorgina, jentila	Euskara
2003, 2, 155-161	Barreña, Andoni Idiazabal, Itziar Juaristi, Patxi Uranga, Belen	<a href="#">Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren aurkezpena</a>	hizkuntza, hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza-ondarea, txostena, hezkuntza, hezkuntza-sistema, hezkuntza eleanitza, elebitasuna, eleaniztasuna, hezkuntza-eskubideak, hizkuntzaren berreskurapena, hizkuntza txikiak	Euskara
2003, 2, 162-170	Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Lana eta garapen teknologikoa Xabiartxo eskola-libururan</a>	lana, testuliburua, curriculum	Euskara
2003, 2, 171-177	Zalbide, Xabier Gaminde, Iñaki Hernaez, Inma Zubizarreta, Maren Navas, Eva	<a href="#">Euskararako SAMPA kodeaz</a>	hizkuntzaren teknologiak, transkribapen fonetikoak, SAMPA kodea	Euskara
2003, 3, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 3ren aurkezpena</a>		Euskara
2003, 3, 4-22	Aurrekoetxea, Gotzon	<a href="#">Arratiako hitanoaren arautzea</a>	dialektologia, Arratiako euskara, aditz paradigmak, hitanoa	Euskara
2003, 3, 23-30	Barrutia, Eneko	<a href="#">Itsas txorien izenak Mendebaldean</a>	itsas txori, Alvar, Azkue, Pérez, Sánchez-Llamosas	Euskara
2003, 3, 31-98	Mtz. de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (B eta D letrak)</a>	hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2003, 3, 99-105	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Doinu-azentudunaren pertzepzioaz</a>	fonetika, azentua, pertzepzioa	Euskara
2003, 3, 106-117	Bilbao, Begoña	<a href="#">Euskara XX. mendeko testuliburuaren arabera</a>	euskara, testuliburua, curriculum, ingurunearen ezaguera	Euskara
2003, 3, 118-123	Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Ikonografia euskarri teknologiko berrietan</a>	eskola, ikonografia, euskal erreferentia	Euskara

2003, 3, 124-136	Sanchez, Jon Luengo, Iker Castelruiz, Amaia Zalbide, Xabier Navas, Eva Hernaez, Inma	<a href="#">Intonazioa eta Emoziok: Ezagutze automatiko baterantz</a>	intonazioa, ezagutze automatikoa, emozioak	Euskara
2004, 4, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 4ren aurkezpena</a>		Euskara
2004, 4, 4-118	Solabarrieta, Txomin	<a href="#">Euskal postposizioak</a>	postposizioak, korpua, erabilera	Euskara
2004, 4, 119-219	Mtz. de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (E. F eta G letrak)</a>	hiztegia, ahozkotasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2004, 4, 220-226	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Bazen Lagun bat, aditzek sorgindu zutena: Pedro de Yrizar</a>	morfologia, aditza, dialektologia	Euskara
2004, 4, 227-233	Bilbao, Begoña Goikoetxea, Juan Luis Gaminde, Iñaki Elgoibar, Esther Olalde, Ander Markaida, Idoia	<a href="#">Ingurune hurbila euskarri teknologiko bidez: Bakioko ahozko ondarean oinarritua</a>	hizkuntzaren didaktika, hizkuntzalaritza aplikatua, curriculum, baliabide didaktikoak, ingurune hurbila	Euskara
2004, 4, 234-245	Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Xabierto-ren jarraikako testuliburuak euskal irakaskuntzaren garapenean</a>	lana, testuliburu, curriculum	Euskara
2004, 4, 246-251	Hernáez, Inma Luengo, Iker Navas, Eva Zubizarreta, Maren Gaminde, Iñaki Sanchez, Jon Madariaga, Imanol	<a href="#">Euskarazko Speech_Dat (II) Datu-basea: Deskribapena eta Lehen Ezagutze Saiakeren Emaitzak</a>	hizkuntzaren teknologiak	Euskara
2004, 4, 252-257	Bilbao, Begoña	<a href="#">Euskara: Ikonografia bidezko ibilbidearen kronika</a>	curriculum, euskara, testuliburu, ingurunearen ezaguera, ikonografia	Euskara
2004, 5, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 5en aurkezpena</a>		Euskara
2004, 5, 4-10	Alvarez Enparantza, Jose Luis "Txillardegi"	<a href="#">Batua eta euskal fonologiaz</a>	hizkuntza eta ideologia, ortografia, fonologia, araugintza	Euskara
2004, 5, 11-25	Altonaga, Kepa	<a href="#">Pierre Buruzain jaun mediku hazpandarraren "Pasteur jaun zena" (1896)</a>	prosa zientifikoa, prosa-eredua, aitzindaria, euskara ekumenikoa	Euskara
2004, 5, 26-32	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Irakurketa Ozenaren Ezaugarriez (I)</a>	fonetika, fonologia, irakurketa.	Euskara
2004, 5, 33-37	Martin Bosch, Pablo A. "Aritz"	<a href="#">Euskara eta teknologia berriei buruzko burutazio batzuk</a>	euskara, teknologia berriak, hizkuntza, lengoia, pertsona, automata, animalia, ordenagailua, garuna, neurologia	Euskara

2004, 5, 38-110	Martinez de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (I, J eta K letrak)</a>	hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2004, 5, 111-119	Barrutia, Eneko	<a href="#">Apuntes sobre el léxico marinero cantábrico: palabras asturianas</a>	hiztegia, gaztelera, corpusa	Gaztelania
2004, 5, 120-123	Martin, Iratxe Navas, Eva Hernández, Inmaculada Sánchez, Jon Madariaga, Imanol	<a href="#">Hizkuntza teknologietako erabilpenetarako ebaluaketa subjektiborako sistema internet bidez</a>	ebaluaketa, ahotsa	Euskara
2004, 5, 124-154	Gaminde, Iñaki Goikoetxea, Juan Luis Olalde, Ander Elgoibar, Esther Bilbao, Begoña Markaida, Idoia	<a href="#">Bakioko euskararen soinu egituraz</a>	fonetika, fonologia, dialektologia	Euskara Hiru zatitan argitaratua
2005, 6, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 6ren aurkezpena</a>		Euskara
2005, 6, 4-23	Gaminde, Iñaki Aldamizetxebarria, Amaia, Elgoibar Esther Gaminde, Jon	<a href="#">Ereñoko Faustinarene altxorra</a>	kantuak, herri literatura, ahozketasuna	Euskara
2005, 6, 24-94	Martinez de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (L, M eta N letrak)</a>	hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2005, 6, 95-104	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Aditz partizipioen jotaren ebakera Zubereraz</a>	fonetika, akustika, dialektologia	Euskara
2005, 6, 105-115	Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Xabiartxo eta Sabin, eskola liburutako ikasle eredugarri</a>	testuliburu, ikasle, eduki-azterketa	Euskara
2005, 6, 116-120	Telleria, Patxo	<a href="#">Teatro-hizkera euskaldun bizkaitar baten begiradatik</a>	teatro-hizkera, aldakortasun linguistikoa	Euskara
2005, 6, 121-125	Bilbao, Begoña Ezkurdia, Gurutze Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Basque textbooks during the 20th century</a>	testuliburu, curriculum, ikonografia, eduki, testuinguru	Ingelesa
2005, 6, 126-130	Hernaiz, Inmaculada Navas, Eva Diaz de Ilarraza, Arantza Saiz, Rafael Mendoza, Nora Madariaga, Imanol	<a href="#">Hizking XXI: gaitasun linguistikoak dituzten sistematan hizkuntza baliabide eta tresnak barneratzen</a>	hizkuntza baliabideak, korpusak, ahots ezagupena, testu ahots bihurteta	Euskara
2005, 7, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 7ren aurkezpena</a>		Euskara
2005, 7, 4-16	Barrutia, Eneko	<a href="#">Bizkaierazko aditzak hartzen dauen bokal epentetikoa dala eta</a>	aditza, bizkaiera, bokal epentetikoa	Euskara
2005, 7, 17-173	Martinez de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (O, P, R eta S letrak)</a>	hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2005, 7, 174-187	Coteron Agorria, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskara. II: problemas terminológico-transcriptivos</a>	terminologia, aldagarritasun asistematikoa, transkribaketa, ahoskera	Gaztelania

2005, 7, 188-197	Gaminde, Iñaki Goikoetxea, Atotz Sanz, Ziortza Elgoibar, Esther Astobieta, Oihana Gaminde, Jon	<a href="#">Derioko euskararen soinuez</a>	fonetika, fonologia, dialektologia.	Euskara
2005, 7, 198-206	Martin de Vidales, Igor Gaminde, Iñaki Urkijo, Natxo Arenaza, Libe	<a href="#">Irakasleen azentu ekoizpena euskara batuz</a>	azentu ekoizpena, ustezko azentua, irakasleak	Euskara
2005, 7, 207-211	Sanchez, Jon Romayor, Pedro Luengo, Iker Navas, Eva Hernández, Inma	<a href="#">AhoTTS testu ahots bihurgailua PDA sistemetan erabiltzeko moldaketa</a>	PDA, Pocket PC, testu-ahots bihurketa	Euskara
2005, 7, 212-219	Agirre, Eneko Aldezabal, Izaskun Etxeberria, Jone Izagirre, Eli Mendizabal, Karmele Pociello, Eli Quintian, Mikel	<a href="#">EuskalWordNet: euskararako ezagutza-base lexiko-semantikoa</a>	lengoaia naturalaren prozesamendua, hizkuntza baliabideak, ezagutza-base lexiko- semantikoak, semantika konputazionala.	Euskara
2006, 8, 3	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 8 aurkezpena</a>		Euskara
2006, 8, 4-64	Martinez de la Cuadra, Alberto	<a href="#">Nabarnizko Hiztegia (T. U. eta X letrak)</a>	hiztegia, ahozkotasuna, fraseologia, Nabarniz	Euskara
2006, 8, 65-74	Iza, Naiara Gaminde, Iñaki	<a href="#">Dimako kanten gainean</a>	kantuak, herri literatura, ahozkotasuna	Euskara
2006, 8, 75-82	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Dardarkarien ezaugarri akustikoez</a>	fonetika, dardakariak, dialektologia	Euskara
2006, 8, 83-94	Munarriz, Amaia	<a href="#">Euskalkiko eta batuko azentua aurrez aurre</a>	azentua, euskalkia, batua	Euskara
2006, 8, 95-127	Sanchez, Jon, Navas, Eva Saratxaga, Ibon Hernández, Inma	<a href="#">Evaluación del conversor de texto en habla con modelo HNS, y comparación con el modelo MBROLA</a>	testua hots bihurketa, HNS, MBROLA, froga subjektiboak	Euskara
2006, 9, 4	Amorrortu, Esti	<a href="#">Euskalingua 9ren aurkezpena</a>		Euskara
2006, 9, 5-98	Solabarrieta, Txomin	<a href="#">Bizkaierazko aditz laguntzailearen adizkitegia</a>	aditz morfologia, aditz paradigmak, bizkaiera	Euskara
2006, 9, 99-109	Barrutia, Eneko	<a href="#">Bermeoko arrantzaleei eginiko grabazioen transkripzioa (I)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2006, 9, 110-135	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian</a>	lexikografia, dialektologia, umeen olgetak	Euskara
2006, 9, 136-145	Austin, Jennifer	<a href="#">Dative Overmarking in Basque: Evidence of Spanish-Basque Convergence</a>	elebitasuna, bateratze sintaktikoa, hizkuntz ukipena	Ingelesa
2006, 9, 146-156	Arregi, Karlos Nevins, Andrew	<a href="#">A Distributed Morphology Analysis of Present Tense Auxiliaries in Zamudio Basque</a>	Zamudio, g-/z- murrizketa, morfologia distributiboa, biregokitzapen-arauak, impoverishment	Ingelesa



2006, 9, 157-163	Aurrekoetxea, Gotzon Ormaetxea, Jose Luis	<a href="#">"Euskararen atlas sozio-geolinguitikoa" ikerketa-proiektua</a>  <a href="#">Research project - "Socio-geolinguistic atlas of the Basque language"</a>	dialektologia, soziolinguistika, geolinguitika  dialectology, sociolinguistics, geolinguistics	Euskara eta ingelesa
2006, 9, 164-172	Bilbao, Begoña Ezkurdia, Gurutze Perez Urraza, Karnele	<a href="#">Curriculumeko eduki gorakariak 2000. urtetik hona</a>  <a href="#">Increases in curriculum contents, from 2000 to the present day</a>	curriculum, edukia, ikonografia, testuliburua  Curriculum, contents, iconography, textbook	Euskara eta ingelesa
2006, 9, 173-178	Saratxaga, Ibon Navas, Eva Hernaez, Inma Sanchez, Jon	<a href="#">Korpusean oinarritutako sintesirako euskarazko datu base emoziodun baten diseinu eta grabaketa</a>  <a href="#">Design and recording of a corpus-based synthesis emotions database in Basque</a>	ahots datu baseak, emozioak, korpusean oinarritutako sintesia  speech database, emotions, corpus-based synthesis	Euskara eta ingelesa
2007, 10, 3	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 10aren aurkezpena</a>		Euskara
2007, 10, 4-19	Barrutia, Eneko	<a href="#">Bermeoko arrantzaleei eginiko grabazioen transkripzioa (II)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2007, 10, 20-52	Coterón, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskara, III: contra la asimetría entre sujeto y objeto: §§ 1-3</a>	gramatika, subjektua, objektua, asimetria, galdegaia, intonazioaren fonologia, ergatibitatea	Gaztelania
2007, 10, 53-62	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Datibodun adizkiak jakin eta eduki aditzekin Bizkaian</a>	morfologia, gramatika, dialektologia	Euskara
2007, 10, 63-68	Kaltzakorta, Mixel	<a href="#">Galdegaia hasikera perpausetan (I)</a>  <a href="#">The focus of the information or galdegaia in introductory sentences (I) (In the book Hamaika abere-ipuin)</a>	galdegaia, hitzordena, hasikera perpausak (oraciones iniciales), informazio gunea, informazio osagarriak, aldaera  informationally relevant phrase, galdegaia, word order, initial sentences, information zone, information complements	Euskara eta ingelesa

2007, 10, 69-86	Ezkurdia, Gurutze	<a href="#">Lurraldea XX. eta XXI. mendeko Euskal Herriko testuliburuetan</a>  <a href="#">Territory in 20<sup>th</sup> and 21<sup>st</sup> century textbooks in the Basque Country</a>	curriculum, edukia, identitatea, ikonografia, testu liburua  curriculum, content, identity, iconography, textbook	Euskara eta ingelesa
2007, 10, 87-92	Saratxaga, Ibon Luengo, Iker Navas, Eva Hernández, Inmaculada Sánchez, Jon Sainz, Iñaki Madariaga, Imanol	<a href="#">Ahotsaren pitch-aren antzematea baldintza zaitetan</a>  <a href="#">Detecting voice pitch in adverse conditions</a>	intonazioa, pitch-a, pitch-aren antzematea  intonation, pitch, pitch detection	Euskara eta ingelesa
2007, 11, 3	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 11ren aurkezpena</a>  <a href="#">Euskalingua 11 Presentation</a>		Euskara eta ingelesa
2007, 11, 4-16	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginekoko grabazioen transkripzioa (I)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2007, 11, 17-43	Coterón, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskara. III: contra la asimetría entre sujeto y objeto: §§ 4-5</a>	gramatika, subjektua, objektua, asimetria, galdegaia, intonazioaren fonologia, ergatibitatea	Gaztelania
2007, 11, 44-48	Kaltzakorta, Mixel	<a href="#">Galdegaia hasikera perpausetan (eta II)</a>  <a href="#">The focus of the information or galdegaia in introductory sentences (and II) (In the book Amattoren uzta)</a>	galdegaia, hitzordena, hasikera perpausak (oraciones iniciales), informazio gunea, informazio osagarriak, aldaera  focus, galdegaia, constituents, verb, complements, word order, variants, initial sentences	Euskara eta ingelesa
2007, 11, 49-66	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (II)</a>	lexikografia, dialektologia, umeen olgetak	Euskara
2007, 11, 67-94	Etxebarria, Nagore	<a href="#">1708ko eskuizkribu argitaratubakoa bizkaieraz: edizinoa eta hizkerearen azterketea</a>	katalogoa, eskuizkribua, 1708, bizkaiera, edizinoa, jatorrizko transkripzioa, grafia, gaurkoturik, faksimilea, hizkuntzearen azterketea, Deba-ibarrekua	Euskara Eskuizkribuaren faksimilea

2007, 11, 95-98	Luengo, Iker Navas, Eva Hernaiz, Inma Sanchez, Jon Saratxaga, Ibon Sainz, Iñaki Igarza, Juan J. Odriozola, Igor	<a href="#">Epe laburreko ezaugarri prosodikoek eraginkortasuna hitzuna egiaztatzeko</a>	hiztunaren identifikazioa, prosodia	Euskara
2008, 12, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 12ren aurkezpena</a>		Euskara
2008, 12, 6-16	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginiko grabazioen transkripzioa (II)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2008, 12, 16-26	Aurrekoetxea, Gotzon	<a href="#">Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran</a> <a href="#">Sociolinguistic variation in Dima Basque<sup>1</sup></a>	hizkuntza bariazioa, geolinguistika, soziolinguistika  language variation, geolinguistics, sociolinguistics	Euskara eta ingelesa
2008, 12, 27-84	Coterón, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskara, III: contra la asimetría entre sujeto y objeto: §§ 6-7</a>	gramatika, subjektua, objektua, asimetria, galdegaia, intonazioaren fonologia ergatibitatea	Gaztelania
2008, 12, 85-98	Kaltzakorta, Mitxel	<a href="#">Galdegaia testu osoetan (I)</a> <a href="#">The focus of the information or galdegaia in whole texts (I)</a>	galdegaia, galdegai-lekua, informazio gunea, informazio osagarriak  focus, galdegaia, position of the focus, nucleus of the information, information complements	Euskara eta ingelesa
2008, 12, 99-106	Piarres Charriton	<a href="#">Medikuak Euskal Literaturan</a> <a href="#">Physicians in Basque Literature</a>	medikua, euskal literatura  medicine doctor, Basque literature	Euskara eta ingelesa
2008, 12, 107-111	Luengo, Iker Navas, Eva Sainz, Iñaki Saratxaga, Ibon Sanchez, Jon Odriozola, Igor Igarza, Juan J. Hernaiz, Inma	<a href="#">Hizlaria egiaztatzeko euskarazko eta gaztelerazko datu-base elebiduna eraikitzen</a>	datu-base elebiduna, hizlariaren egiaztatpena	Euskara
2008, 13, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 13ren aurkezpena</a>		Euskara
2008, 13, 6-15	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginiko grabazioen transkripzioa (III)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2008, 13, 16-26	Iglesias, Aitor	<a href="#">Igorreko azentuaz</a> <a href="#">Igorre accent</a>	dialektologia, azentua, Arratia, Igorre  dialectology, accent, Arratia, Igorre	Euskara eta ingelesa

2008, 13, 27-36	Laka, Enara Olondo, Leire Gaminde, Iñaki	<a href="#">Bermeoko Gazteen Euskararen Aditz Morfologiaz</a>	morfologia, aditza, gramatika, soziolinguistika	Euskara
2008, 13, 37-44	Kaltzakorta, Mitxel	<a href="#">Galdegaia testu osoetan (eta II)</a>  <a href="#">The focus of the information or galdegaia in whole texts (and II)</a>	galdegaia, galdegai-lekua, informazio gunea, informazio osagarria  focus or galdegaia, position of the focus, nucleus of the information, information complement	Euskara eta ingeleza
2008, 13, 45-55	Larrea, Kepa	<a href="#">Erroreak bigarren hizkuntzaren (H2) irakaskuntzan</a>	errorea, hutsegitea, tarteko hizkuntza, fossilizazioa, transferentzia, gainjeneralizazioa, sinplifikazioa, hipotesia, xede-hizkuntza, ama-hizkuntza, bigarren hizkuntza, ikas-prozesua	Euskara
2008, 13, 56-67	Goikoetxea, Juan Luis	<a href="#">Herri jakituria: hizkera eta izaera. Idaho: airean joan eta behea jo</a>	herri jakituria, definizioak, Idaho, kontu kontari ez anonimoa, pentsaera magikoa, bizkaiera	Euskara
2008, 13, 68-71	Sainz, Iñaki Saratxaga, Ibon Navas, Eva Hernández, Inmaculada Sanchez, Jon Luengo, Iker Odriozola, Igor Madariaga, Imanol	<a href="#">Euskarazko datu base emoziodun baten ebaluaketa subjektiboa</a>  <a href="#">Subjective evaluation of an emotional speech database for Basque</a>	datu-base emozioduna, ebaluaketa subjektiboa  emotional speech database, subjective evaluation	Euskara eta ingeleza
2009, 14, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 14ren aurkezpena</a>		Euskara
2009, 14, 6-15	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (IV)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara Hamar audio
2009, 14, 16-28	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Azentuaren korrelatu akustikoak Gatikako lexikoan</a>  <a href="#">Acoustic correlates of the accent in Gatika lexicon</a>	fonetika, akustika, azentua  phonetics, acoustics, accent	Euskara eta ingeleza

2009, 14, 29-42	Kaltzakorta, Mitxel	<a href="#">Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (I)</a>	temea (mintzagaia), remaa, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, egokitzapena, koherentzia tematikoa, arlot gramatikala, arlot testuala, makrokoherentzia, mikrokoherentzia	Euskara
2009, 14, 43-62	Perez Urraza, Kepa	<a href="#">Zeberio haraneko ermiten zehar ibilaldi historiko-didaktikoa</a>	ermita, datu historiko, nekazal jai-ohiturak	Euskara
2009, 14, 63-66	Madariaga, Imanol Nieves, Veronica	<a href="#">Euskarazko web testuak ahots bihurtzeko software aplikazioa</a>  <a href="#">Software application to convert Basque texts from the Web to speech</a>	testu-ahots bihurgailua, web nabigatzailea, lanabes barra  text-to-speech converter, web browser, toolbar	Euskara eta ingelesa
2009, 15, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 15en aurkezpena</a>		Euskara
2009, 15, 6-19	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginek grabazioen transkripzioa (V)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2009, 15, 20-31	Kaltzakorta, Mitxel	<a href="#">Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (II)</a>	temea (mintzagaia), remaa, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, egokitzapena, koherentzia tematikoa, arlot gramatikala, arlot testuala, makrokoherentzia, mikrokoherentzia	Euskara
2009, 15, 32-52	Altonaga, Kepa	<a href="#">Daniel Lizarralde medikuaren Moskorrak (1899) eta Florentzio Basalduaren Argentinako Euskal Herri berria</a>	prosa-zientifiko, proiektu politiko	Euskara
2009, 15, 53-59	Odrizola, Igor Navas, Eva Sanchez, Jon Luengo, Iker Saratxaga, Ibon Sainz, Iñaki Hernández, Inma	<a href="#">Mendebaldeko euskararen lexikoaren tratamendua, enbor+hondarki banaketan oinarritua, hizketa dialektalaren ezagutze automatikorako</a>	enbor eta hondarkiak, aldaera fonetikoak, ASR dialektala, mendebaldeko euskara	Euskara
2010, 16, 5	Unamuno Maribi	<a href="#">Euskalingua 16ren aurkezpena</a>		Euskara
2010, 16, 6-20	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginek grabazioen transkripzioa (VI)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara
2010, 16, 21-27	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Ahots patologien azterketa akustikoen izariez</a>	fonetika akustikoa, ahots patologiak, jitter, shimmer	Euskara

2010, 16, 28-40	Kaltzakorta, Mixel	<a href="#">Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (III)</a>	temea (mintzagaia), rema, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, arlotestuala, ordena neutroa, ordena ez neutroa, galdegaia (fokoa), galdegai neutroa, galdegai enfatikoa, tematizazioa, topikalizazioa	Euskara
2010, 16, 41-48	Unamuno, Lorea	<a href="#">Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran</a>	hizkuntza bariazioa, soziolinguistika, geolinguistika, kulturizazioa, deskulturizazioa, euskara estandarra, maileguak	Euskara
2010, 16, 49-60	Nafarrate, Unai	<a href="#">“Prestigio”ren estatusa bariazio soziolinguistikoa</a>	bariazio soziolinguistikoa, prestigioa, estatusa, estratifikazioa, erregistroa, generoa	Euskara
2010, 17, 5	Unamuno Maribi	<a href="#">Euskalingua 17ren aurkezpena</a>		Euskara
2010, 17, 6-18	Barrutia, Eneko	<a href="#">Mundakako arrantzaleei eginekoko grabazioen transkripzioa (VII)</a>	transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera	Euskara Lau audio
2010, 17, 19-35	Kaltzakorta, Mixel	<a href="#">Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (IV)</a>	temea (mintzagaia), rema, progresino tematikoa, fokoa (galdegaia), foko informatiboa (neutroa), foko enfatikoa	Euskara
2010, 17, 36-58	Sarriugarte, Iñaki	<a href="#">Euskarazko lehenengo egunkaria: 36ko gerran Bilbon sorturiko Eguna</a>	euskal kazetaritza, euskal egunkaria	Euskara
2010, 17, 59-97	Perez, Kepa	<a href="#">Zeberriko Matxurrena baserrian aurkituriko dokumentazio historikoa. Protokolo notarialen metodologiarako ekarpen didaktikoa</a>	protokolo notarial, ezkontza-kontratu, diru-zentsua, baserria, olagintza, bide judiziala	Euskara
2010, 17, 98-104	Luengo, Iker Navas, Eva Sanchez, Jon Hernández, Inma	<a href="#">Bokalen antzematea fonemen klusterren bidez</a>	segmentazioa, bokalen antzematea, erritmoaren estimazioa	Euskara
2011, 18, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 18ren aurkezpena</a>		Euskara
2011, 18, 6-12	Gaminde, Iñaki	<a href="#">79-93ko Euskaldunen Ahozko Corpusaren Ezaugarrien Deskripzioa</a>	hizkuntz corpusa, ahozkotasuna, fonetika	Euskara
2011, 18, 13-21	Etxebarria, Aintzane	<a href="#">Prosodiaren garrantzia kortesia erlazioetan</a>	prosodia, kortesia, pragmatika, fonologia, fonetika	Euskara

2011, 18, 22-51	Esparza, Iñaki Larrea, Angel Rekalde, Juan	<a href="#">Arratia inguruko kanta partida AK-37 taldearen eskutik</a>	Arratia, euskar kantak	Euskara
2011, 18, 52-56	Erro, Daniel Sainz, Iñaki Luengo, Iker Odrizola, Igor Sánchez, Jon Saratxaga, Ibon Navas, Eva Hernáez, Inma	<a href="#">HMMetan oinarritu tako euskararako testu-ahots bihurketa, HTS erabiliz</a>	testu-ahots bihurketa, HMM sintesia	Euskara
2011, 18, 57-62	Luengo, Iker	<a href="#">AhoLab taldearen sarrera Albayzin 2010 hizlarien diarizazio erronkarako</a>	hizlarien diarizazioa, BIC, linean audio prozesaketa	Euskara
2011, 19, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 19ren aurkezpena</a>		Euskara
2011, 19, 6-16	Legarra, Hiart	<a href="#">Zenbait arau fonologiko Ariatza-Muxikako euskararen</a>	fonologia prosodikoa, fonologia lexikoa, gramatika arauak	Euskara
2011, 19, 17-24	Garay, Urtza Gaminde, Iñaki Etxebarria, Aintzane Romero, Asier	<a href="#">Gazte euskaldunek testu irakurrietan egiten dituzten grafema hots korrespondentziaz</a>	irakurketa ozena, fonetika, soziolinguistika	Euskara
2011, 19, 25-30	Aurrekoetxea, Gotzon Unamuno, Lorea	<a href="#">Perpau arteko euskara-gaztelania kode-aldaketa</a>	hizkuntzen ukipena, soziolinguistika, perpau arteko kode-aldaketa, euskara-gaztelania elebitasuna	Euskara
2011, 19, 31-34	Odrizola, Igor Navas, Eva Hernáez, Inma Sainz, Iñaki Saratxaga, Ibon Sánchez, Jon Erro, Daniel	<a href="#">Euskarazko ahoskera ebaluatzeko sistema baten garapena, ASR datu-basearen bidez</a>	euskara, ahozkeraren ebaluaketa, ASR datu-basea	Euskara
2011, 19, 35-39	Erro, Daniel Sainz, Iñaki Saratxaga, Ibon Navas, Eva Hernáez, Inma Sánchez, Jon Odrizola, Igor	<a href="#">MFCC+F0 erauzketa eta ahots-uhina berreraikitzea HNM erabiliz: HMM sintesi-sistema batean lortutako aurretiko emaitzak</a>	ahots-parametrizazioa, ahots-sintesi parametrikoko eta estatistikoa, ahots-bihurketa, harmonikoak zarata-eredua	Euskara
2012, 20, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 20ren aurkezpena</a>		Euskara
2012, 20, 6-10	Unamuno, Lorea Ensunza, Ariane Ormaetxea, Jose Luis Iglesias, Aitor Aurrekoetxea, Gotzon	<a href="#">Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak</a>	sintaxia, mapa sintaktikoa, bariazio soziolinguistikoa, bariazio sintaktikoa bariazio geografikoa, ikuspegi geolinguistikoa, desberdintasun diatopikoa	Euskara
2012, 20, 11-43	Rekalde, Juan Larrea, Angel	<a href="#">Arratiako berbetearren gitxieneko hiztegia</a>	Arratia, berbategia, erabilera	Euskara
2012, 20, 44-52	Walibora, Ken Ormazabal, Manu	<a href="#">Ameriketako Ametsa</a>	ametsa, ipuina, swahili	Euskara

2012, 20, 53-57	Erro, Daniel Sainz, Iñaki Navas, Eva Hernández, Inma Sánchez, Jon Saratxaga, Ibon Odriozola, Igor	<a href="#">Ahots-sintesarako HNM erudian oinarritutako vocoder hobetua</a>	Vocoder, ahots-sintesi parametrikoko eta estatistikoa, harmonikoak eta zarata eredia, ahots-parametrizazioa	Euskara
2012, 20, 58-63	Sainz, Iñaki Erro, Daniel Navas, Eva Hernández, Inma	<a href="#">TTS ikuspegi hibrido bat modulu akustiko eta prosodikoentzat</a>	ahots sintesia, unitate aukeraketa, sintesi estatistikoa, sistema hibridoa	Euskara
2012, 21, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 21en aurkezpena</a>		Euskara
2012, 21, 6-19	Gaminde, Iñaki	<a href="#">Fonemen eta alofonoen maiztasunak Bizkaiko gazteen bat-bateko testuetan</a>	soziolinguistika, bariazioa, fonologia	Euskara
2012, 21, 20-27	Aurrekoetxea, Gotzon Gaminde, Iñaki Etxebarria, Aintzane Iglesias, Aitor	<a href="#">Ahozko hiztegia</a>	hiztegia, estandarra, azentua	Euskara
2012, 21, 28-33	Ensunza Aldamizetxebarria, Ariane	<a href="#">Busturialdea Fonética Histórica Vasca-n</a>	Busturialdea, Mitxelena, Fonética Histórica Vasca	Euskara
2012, 21, 34-39	Coterón, Ibon	<a href="#">Apuntes de filosofía del euskera. IV: verdades y medias verdades de la explicación al uso de la construcción participio+egin+verbo auxiliar del euskara occidental</a>	fokoa, focus, galdegaia, aditza galdegai, baieztapena galdegai	Gaztelania
2012, 21, 40-42	Goikoetxea, Udane	<a href="#">Gotzon Garate. Tradiziotik modernitatera I</a>	Gotzon Garate, atsotitzak, tradizioa, modernitatea.	Euskara
2012, 21, 43-47	Tavarez, David Navas, Eva Erro, Daniel Saratxaga, Ibon Hernández, Inma	<a href="#">Emaitzen post-prozesatze teknikak hizlarien diarizazio-sistema baterako</a>	hizlarien diarizazioa, segmentazioa, trankribapen aberaztua	Euskara
2013, 22, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 22ren aurkezpena</a>		Euskara
2013, 22, 6-12	Ensunza Aldamizetxebarria, Ariane	<a href="#">Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean</a>	dialektologia, aldakortasuna, aldaera, Gandara, De la Quadra, Gernika-Lumo, Bermeo, Busturialdea, XVIII. mendea, lekukotasun zaharrak, konparaketa	Euskara
2013, 22, 13-19	Goikoetxea, Udane	<a href="#">Gotzon Garate. Tradiziotik modernitatera II</a>	Gotzon Garate, atsotitzak, tradizioa, modernitatea	Euskara
2013, 22, 20-25	Iturbe, Jacinto	<a href="#">Jon Izurrategiren Idazki-ereduak</a>	Izurrategi, idazki-ereduak, gutunak	Euskara
2013, 22, 26-29	Rekalde, Juan	<a href="#">Sorginen gaineko etnotestua Lezaman jasoa</a>	sorgin, etnotestu	Euskara Audioa



2013, 22, 21-24	Odriozola, Igor Hernández, Inma Navas, Eva Sanchez, Jon	<a href="#">Mezuak egiaztatzeko tresna baten diseinua, bigarren hizkuntzak ikasteko sistemetan inplementatzeko</a>	CALL sistemak, hizketa-egiaztatpena, mezu-egiaztatpena, PS parametroak, L2ren jabetzea	Euskara
2013, 22, 25-29	Saratxaga, Ibon Hernández, Inma	<a href="#">Fasea ahots-seinalearen eredu harmonikoetan: adierazpidea, prozesaketa eta aplikazioak</a>	fasea, eredu harmonikoak, polaritatea, ASR, hitzun-ezagutze, ahots-pertzepzioa	Euskara
2013, 23, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 23ren aurkezpena</a>		
2013, 23, 6-13	Gaminde, Iñaki Unamuno, Lorea Iglesias, Aitor Gandarias, Leire	<a href="#">Bizkaiko neska gazteen kontsonante afrikatuen izari akustikoez</a>	afrikatua, fonetika bariazioa, akustika	Euskara
2013, 23, 14-27	Gaminde, Iñaki Garay, Urtza Etxebarria, Aintzane Romero, Asier	<a href="#">Oinarrizko emozioen melodiez</a>	emozioak, fonetika akustikoa, fonologia, hizkuntzaren bariazioa	Euskara
2013, 23, 28-39	Mata, Celia	<a href="#">Lezoko azentua: herri-hizkera vs. herri-batua</a>	Lezo, azentua, euskara, batua, erri hizkera	Euskara
2013, 23, 40-54	Ensunza, Ariane	<a href="#">XVIII. mendeko Gabon Kantak: Gandara eta Sor Luisa</a>	Gandara, Sor Luisa, XVIII. mendea, Gabon Kantak, bilantziko, zejel, hotsaldi, tonadilla, segidilla, jacara, aria, mudantza	Euskara
2013, 23, 55-65	Goikoetxea, Udane	<a href="#">Gotzon Garate. Tradiziotik modernitatera III</a>	Gotzon Garate, tradizioa, modernitatea, atsotitzak, kultura	Euskara
2013, 23, 66-76	Leturia, Igor Sarasola, Kepa Arregi, Xabier Diaz de Ilarraza, Arantza Navas, Eva Sainz, Iñaki del Pozo, Arantza Álvarez, Aitor Baranda, David Iturraspe, Urtza	<a href="#">BerbaTek: euskararako hizkuntza teknologien garapena itzulpengintza, edukien kudeaketa eta irakaskuntza arloetan</a>	lengoaia naturalaren prozesamendua, ahotsaren prozesamendua, baliabide gutxiko hizkuntzak	Euskara
2014, 24, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 24ren aurkezpena</a>		Euskara
2014, 24, 6-21	Gaminde, Iñaki Gandarias, Leire Plaza, Jone	<a href="#">Lekeitioko txistukariez: Frikariak eta Afrikatuak</a>	txistukariak, fonetika artikulatorioa, fonetika akustikoa	Euskara

2014, 24, 22-70	Rekalde, Juan	<a href="#">Ulpiano Uriarteren "Eszelentzien liburua" eskuizkribuaren lehen argitalpena (Libro de las eselencias del año 1902): Argitalpen kritikoa eta argibideak</a>	eskuizkribu, bizkaiera, Arratia	Euskara Testu originala eskaneatuta.
2014, 24, 71-77	Iturbe, Jacinto	<a href="#">Jose Maria Ampueroaren "Nezazariyen Cartillachua Bizcaico Eusqueran": Bigarren edizio ezezaguna</a>	Ampuero, cartillachu, nekazaritza	Euskara Testu originala eskaneatuta.
2014, 24, 79-85	Unamuno, Maribi Unamuno, Lorea	<a href="#">Ume kantak</a>	ume kanta, lo kanta, errezitatu, olgeta	Euskara Kanta bakoitzak audioa
2014, 25, 5	Unamuno, Maribi	<a href="#">Euskalingua 25en aurkezpena</a>		Euskara
2014, 25, 6-14	Gandiaga Ibarzabal, Orkatx	<a href="#">Markina-Xemeingo azentua</a>	Prosodia azentua lurralde bariazio euskara	Euskara
2014, 25, 15-23	Bilbao, Begoña Ezkurdia, Gurutze, Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Hezkuntzaren Memoria eraikiz Gradu Amaierako Lanen bidez</a>	Gradu Amaierako lana, memoria historikoa, memoria kolektiboa, hezkuntza	Euskara
2014, 25, 24-33	Inuntziaga, Iraia	<a href="#">Igorreko Santa Lucia auzo eskola</a>	Auzo eskola, hezkuntza, irakaskuntza, aldaketa, gizartea	Euskara
2014, 25, 34-62	Sarriugarte, Iñaki	<a href="#">Dimatik Manilara, Argentina eta Txinan barna Aita Soloeta-Dima (1881-1964)</a>	Soloeta-Dima, Buenos Airesko Euskal Echea, euskararen batasuna, Txinako misioak	Euskara
2014, 25, 63-80	Unamuno, Lorea Unamuno, Maribi Perez Urraza, Karmele	<a href="#">Euskalingua 1-25 katalogoa</a>	<i>Euskalingua</i> , katalogo, aldizkari digital, egile, izenburu, gako hitz	Euskara